

Emakumeek ere ehizatzen zuten gizarte ehiztari-biltzaileetan



Baka taldeko emakume bat ehizean (Afrika Erdiko Errepublikak). ARG.: Max Chiswick/CC By-SA 4.0.

Mundu osoko 63 talde ehiztari-biltzaileen azken ehun urteko datuak aztertuta, ondorioztatu dute emakumeek ere ehizatzen zutela. Argi utzi dute gizon ehiztariaren mitoa okerra dela.


Aurrez, ikerketa arkeologikoetan ere ikusi izan dute hainbat kulturatan emakumeek janaria lortzeko era guztietako jardueretan parte hartzen zutela. Oraingo ikerketan, azken ehun urteetako ehizari buruzko bibliografia aztertu dute, eta frogatu dute talde ehiztari-biltzaile gehienetan (zehazki, 50 taldetan) emakumeek eta gizonak ehizatzen zutela. Are gehiago, emakumeek gizonen baino estrategia eta arma-mota gehiago erabiltzen zituzten, eta besteei irakatsi ere egiten zieten.

Emakume ehiztariak ez zuten aukera sortzen zitzaienean edo harrapakina eskura zutenean bakarrik ehizatzen; berariaz ere joaten ziren ehizatzaera, batez ere, ehiza larria. Batzuetan, haurrak ere eramaten zituzten, baita txakurrak ere. ●

Esne Bidearen barrutik igorritako neutrinoak detektatu ditu IceCubek

Esne Bidearen barruan energia handiko neutrino-emisioa dagoela baieztatu dute IceCube neutrinoen behatokiko datuek, [Science aldizkarian argitaratutako azterketa baten arabera](#).

Orain arte, energia handiko neutrinoen behaketetan, [gure galaxiatik kanpoko lekuetatik igorritakoak detektatu izan dira](#). Gamma izpien behaketetan, berriz, Esne Bidearen plano galaktikoan sortutako emisio distiratsuak detektatu izan dira. Eta astrofisikarien aurreikuspenen arabera gamma izpiak eta neutrinoak prozesu astrofisiko berberen bidez sortzen direnez, uste izatekoa zen Esne Bidearen plano galaktikoa neutrinoen sorburua ere izango dela.



IceCube neutrinoen behatokia, gauaz. ARG.: John Hardin/CC BY 4.0.

Orain, IceCube neutrinoen behatokiak 10 urtez bildutako datuak adimen artifizialaren bidez aztertuta, Esne Bidearen barrutik igorritako neutrinoen lehen ebidentzia estatistikoki sendoa lortu dute. Iker-tzaileen arabera, Esne Bidea energia handiko neutrinoen sorburua dela frogatzen du horrek. ●